

EUDELEKO BATZORDE ERAGILEAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIAREN 435/2023 EPAIARI BURUZ EGINDAKO ADIERAZPENAREKIN BAT EGITEA ETA HERRITARREI EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN ETA BIZIBERRITZEAREN ALDE AZAROAREN 4AN DEITUTAKO MANIFESTAZIOAN PARTE HARTZEKO DEIA

EUDELEko Batzorde Eragileak urriaren 19an Euskadiko Udalen Elkartearen egoitzan egin duen lehenengo ohiko bileran, alkateek jarraian datorren adierazpena onartu dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak eman berri duen epaia dela eta. Epaia horrek 179/2019 Dekretuaren zati bat baliogabetu du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (ETEL) aitortutako euskararen erabilera instituzionala eta administratiboa garatzeko:

1. Aurretik, Konstituzio Auzitegiaren epaian egin bezala, EUDELEk berretsi egin du ETELen defentsa, udal-autonomiaren eta toki-erakundeen eskumenen bermatzaile gisa, zehazki, euskararen esparruan. Legea ezinbestekoa da euskal udalek euskararekiko duten konpromisoa eta euskal udalerrietan euskararen erabileraren sustapena gauzatzeko, herritarrekin duten hurbiltasunetik abiatuta.
2. EUDELEk uste du epaia berri hori **toki-autonomiaren aurkakoa** dela, eta hizkuntza arloko udal-eskumenen garapen osoa mugatzen duela.

EUDELEko Batzorde Eragileak bereziki larritzat jotzen du euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu- eta lan-hizkuntza dela aintzat jotzen duten dekretuaren artikulua baliogabetzea. Funtsezko beste artikulua batzuk ere deuseztatzen dira, hala nola, kontratazio publikoan euskara baloratzeko aukera ematen dutenak edo udal-jarduerak euskaraz egin ahal izateko hizkuntza-plangintza ahalbidetzen dutenak. Alderdi horiek eta beste batzuk funtsezkoak dira herritarrek beren hurbileko administrazioarekin harremanetan jartzeko hizkuntza ofiziala aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko.

3. Udalek hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz erabiltzeko irizpideak ezin ezartzea, ez barneko ezta kanpoko mailan ere, oztopo da toki-erakundeen funtzionamenduan eta, are kezagarriagoa, euskal herritarrei ematen dizkieten zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Kaltetuenak euskara gehien erabiltzen den eta ohiko hizkuntza den udalerrietako herritarrak dira.
4. Adostasun politiko eta instituzionalak eta euskal gizartearen elkarlanak, euskal hiztunen komunitatearen bultzada borondateagatik, euskararen bizitasuna indartzea ahalbidetu du gure herri eta hirietan. EUDELEk egungo egoera balioan jartzen du, estatuan eta Europan hizkuntza ko-ofizialen erabilera errazteko urratsak egiten ari baitira, eta, hori horrela, guztion artean eraikitzen joan den legeriaren bidez, hizkuntza-eskubideen garapenean aurrera egiten jarraitzeko erronka eta aukera baita.
5. Epaia horiek erasoaldi judizial zabalago baten parte direla uste dugu, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dena. Euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen alde azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzea deitu dituzte herritarrak euskalgintzako eragileek.

Horregatik guztiagatik, Urretxuko Udalak erabaki du:

Euskalgintzako Kontseiluak azaroaren 4an antolatutako mobilizazioarekin bat egitea.